

## Mondragon Goi Eskola Politeknikoko bi ikaslek Waixe Mobile enpresa sortu dute

2008/04/17

Waixe Mobile egitasmoa, Mondragon Unibertsitatean Telekomunikazio Ingenieritza ikasi duten bi ekintzaileren eskutik hasi da. Ideia honek 5. kurtsoko proiektu batean du jatorria, non fikziozko enpresa baten bideragarritasuna aztertu behar izan zen. Ideia honen harrera ona ikusita Centro de Empresas e Innovación de Mondragon, Saiolanen, lanean hastea erabaki zuten. Astiro-astiro eta eguneroko lanari esker, zenbait hasierako proiektu lortu dituzte, aurrera jarraitzeko animatu zituztenak.

Waixe Mobilek telefono mugikorretara zuzenduriko edukiak garatzen ditu, hau da, bezeroarekin aldeztu aurretik adostutako informazioa mugikorretarako moldatzen du (agenda kulturala, ordutegiak, publizitatea...). Horretaz gain, edukien banaketarako beharrezkoa den azpiegitura guztia eskaintzen du.

Aurrera eraman diren proiektuen artean Durangoko Plateruena Kafe Antzokiari garatutakoa dago (oraindik froga fasean aurkitzen da). Bertara hurbildu eta bluetooth-a martxan jartzearekin batera, hilabeteko egitaraua, asteko menua eta erabiltzailearentzat interesgarria izan daitekeen informazioa jasotzeko aukera ahalbidetzen du. Era honetan, informazioa momentu oro aldean daramagu inolako paperen beharrik gabe, komunikazio bide berri bat erabiliz.

Momentu hauetan, telefono mugikorretarako euskara-erdera (beste edozein hizkuntzatarara moldatu daiteke) hiztegia garatzen dabilta. Hain sinplea dirudien proiektu honek, egun gure gizarteko erabiltzaile askoren beharrak aseko dituela espero da.

Garatzen ari diren teknologia honek mota desberdinetako irtenbideak garatzeko ahalmena eskaintzen du. Etorkizunean bideragarriak izan daitezkeen proiekturen bat aipatzekotan, autobusetako ordutegi eta ibilbideak mugikorraren bitartez kontsultatu ahal izatea, zinemetako kartelera mugikorrean jasotzea, bluetooth bidezko publizitatea, hau da, gertuko marketing-a deritzona eta abar luzea.

Informazio gehiago:

[info@waixe.com](mailto:info@waixe.com)

[www.waixe.com](http://www.waixe.com)

